


HADE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea



2. maila (B2)

Azterketa idatzia

A eredua

Deiturak:

Izena:

NA:

Azterketa idatziak **bi zati** izango ditu:

- Irakurmena
- Idazmena

Ordubete eta 45 minutu izango dituzu osorik egiteko.

	ARIKETA	Puntuazioa, gutxienez	Puntuazioa, gehienez	Proposatutako denbora
Azterketa idatzia	Irakurmena	10	20	45 min inguru
	Idazmena	15	30	60 min inguru
	Guztira	25	50	1 h 45 min

2011ko lehen deialdia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HADE

2. MAILA (B2) A eredua





Irakurmena

Tigreei buruzko artikulu bat irakurriko duzu.

Egitekoa

Irakur ezazu artikulua, eta ondorengo orrian aurkitu testutik kendutako zatiak. Idatzi testuko zatien **letrak laukietan**, adibidean egiten den bezala.

0 adibidea da. Esaldi bat sobera dago.

— I. testua —

Orroa isil ez dadin

Joan den mende hasieratik gaur arte, mende bakar batean alegia, munduan bizi ziren tigreen %97 desagertu dira.(0)..... Bederatzi espezieetatik, gainera, hiru desagertu dira jada: Baliko tigrea, Javakoa eta Kaspiar itsasokoa. Datuok agerian uzten dute animalia kinka larrian dela. Amildegiaeren ertzean. Horregatik, goi-bilera egin dute aste honetan Errusian, hango, Txinako eta Indiako eta tigrea bizi den Asiako gainontzeko hamar herrietako agintariak, neurriak adosteko asmoz.

Asmoa egia bilakatu da, eta herrietako ordezkariak lortu dute hitzarmena:(1)..... . Bestelako neurriak ere zehaztu dute: batetik, aurrerantzean, uztailaren 29a Tigrearen Munduko Eguna izanen da, eta, bestetik, agintariak adostu dute tarteka aste honetakoaren gisako goi-bilerak egingen dituztela eta(2)..... . Dirua da, hain zuzen ere, gako nagusietako bat. Askok aurrerapauso garrantzitsutzat jo dute egin berri den bilera, baina adostutako neurriak martxan jartzeko dirua mahai gainean jartzeko konpromisorik gabe, asmo guztiak hutsean gera daitezkeela azpimarratu dute.

Bileran, 330 milioi dolarreko programa onartu dute parte-hartzaileek.(3)..... Laos eta Butan herrie-

tako ordezkariak, adibidez, onartu dute arazoak izango dituztela adostutakoa bete ahal izateko.

Herri guztiek asmo onak agertu dituzten arren, tigreak ez dira hitzekin salbatuko. Habitataren desagertzea eta isileko ehiza dira, egun, haien arerio nagusiak.(4)..... . “Basa faunaren piramidearen gailurrean dagoen harraparia da tigrea; eta, hala ere, desagertzeko zorian da. Horrek erakusten digu gure planetako faunaren egoera zeinen larria den”, salatu dute Naturarentzako Munduko Funtseko ordezkariak.

Bada beste datu aipagarri bat: aske 3.200 tigre inguru bizi badira, kopurua anitzez handiagoa da eremu itxietan, denera 15.000-20.000 ingurukoa.(5)..... . Haien berezko habitatetik atera, eta bildumazaleentzako altxor preziatu bilakatu dira.

Bizirik, bai eta hilik ere. Tigreen larru marradun ikusgarria 60.000 euroan saltzen da Tibetean eta Errusian. Larruaz gain,(6)..... Indian, Txinan eta Nepalen, besteak beste, medikuntza tradizionalen.

Animalia dotorea, indartsua eta arina tigrea. Ikusgarria. Beltza, berriz, haren oraina, eta are beltzagoa haren etorkizuna,(7).....

Edurne Elizondo, moldatua
(Berria, 2010-11-28)

— I. testua —

Jarri testu zati bakoitza dagokion hutsunean. Idatzi erantzunak beheko laukian, adibidean egiten den bezala. Esaldi bat sobera dago.

- A.- Herri guztiek euren ekarpena egiteko aukera izanen ote duten, hala ere, ez dago batere argi.
- B.- 2022 urterako tigreen kopurua bikoizteko konpromisoa hartu dute.
- C.- Zoologikoetan eta zirkuetan ez ezik, mundu osoan badira gizakien esku haien etxeetan bizi diren milaka tigre.
- D.- tigrea babesteko dirua biltzeko fondoak sortuko dutela.
- E.- haien hezurak eta kaskezurrak ere erabiltzen dira
- F.- Duela ehun urte, 100.000tik gora tigre bazen; gaur, 3.200 inguru besterik ez.**
- G.- haren aldeko neurri eraginkorrak hartzen ez badira, behintzat.
- I.- Bai eta haien harrapakinen desagertzea ere, gizakiaren jardueraren ondorioz.
- H.- Negozioa, hala ere, ez da hor bukatzen.

Aukeratu testu zatiak eta idatzi letrak laukietan, adibidean egiten den bezala.

0.- F	1.-	2.-	3.-	4.-	5.-	6.-	7.-
-------	-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----



Lovecraft idazleari buruzko testua irakurri.

Egitekoa

Irakur ezazu artikulua, eta ondoren idatzi erantzunak beheko laukian, adibidean egiten den bezala.

— 2. testua — Lovecraft

Dotoreago gelditze aldera, beharbada esan beharko nuke Michel Houellebecq-ek eskaini zion biografia txikiari esker ezagutu nuela, baina gezurra litzateke. Iron Maiden taldearen disko batek eman zidan haren lehendabiziko berria, zuzenean grabatutako disko bikoitz batek, hain juxtu ere. Azaleko marrazkian, zonbi bat bere hilobitik ateratzen; hilarrian, poesia lerro batzuk eta sinadura bat: H. P. Lovecraft.

Geroxeago liburuak ailegatu ziren. Lehenik, gaztelaniaz, Alianza argitaletxeak egindako edizioetan, eta ondoren, ingelesez, Penguinin eskutik.

Ipuinak idatzi zituen batez ere, eta nobela laburrak, eta bertan mundu berezia sortu zuen, izuaren eta zientzia-fikzioaren arteko muga. Haren liburuetan badira espaziotik heldu diren formarik gabeko izaki beldurgarriak, huts egindako esperimendu izugarriak eta lur azpian bizi

diren antzinako zibilizazio ilunak. Euskal literaturan nekez aurkituko ditugun gauzak, alegia, literatura fantastikoa ez baita gehiegi egiten gure artean.

Edonola ere, orain badugu aukera Lovecraft euskaraz irakurtzeko, haren nobela bat argitaratu baitute berriki Literatura Unibertsala sailean, Aurora Ruiz Benitok euskaratuta: *Eromenaren Mendietan*. Nik, akaso, beste bat hobetsiko nuen, *Charles Dexter Warden kasua*, adibidez, baina, tira, hori gustu kontua da.

Durangoko liburu berri guztiekin batera iritsi zaigu itzulpen hau, baina egile ezezagun samar baten lana izanik, genero baztertu batekoa, bada, pena litzateke behar duen arreta guztia lortuko ez balu. Nik, behinik behin, badut zer irakurria Eguberri hauetan.

Eta itzultzaileari, esker mila.

Santi Leone, moldatua,
(*Berria*, 2011-01-02)

Adibidea:

0. Zer aipatzen da Houellebecq-i buruz?

- a. Lovecraft-i buruzko biografia idatzi zuela.
- b. Oso dotore idazten zuela.
- c. Lovecraft-i esker ezagutu zuela kazetariak.

1. Zelan ezagutu zuen kazetariak Lovecraft?

- a. Disko baten grabazioan.
- b. Disko baten azaleko hilarrian idatzirik zegoen olerki baten bidez.
- c. Disko baten azalean zegoen liburu baten izenburua ikusita.

2. Nolakoak dira idazlearen lanak?

- a. Beldur eta izaki misteriotsuz betetako olerkiak.
- b. Ulertzen zailak diren ipuinak eta zientzia-fikziozko nobelak.
- c. Beldur eta zientzia-fikzioaren mugakideak.

3. Zer aipatzen da gure literaturaz?

- a. Ez dela erraza horrelako literatura-lanak aurkitzea.
- b. Genero horrek maila gutxi duela.
- c. Neketsua dela genero hori lantzea.

4. Zein da "Eromenaren mendietan" izeneko liburua?

- a. Kazetariari gehien gustatzen zaiona.
- b. Aurora Ruiz Benitok zuzentzen duen argitaletxeak eskaintzen duena.
- c. Duela gutxi euskaratu duten idazle atzeritar baten lana.

5. Zein da kazetariaren beldurra?

- a. Liburuak behar besteko harrera ez izatea.
- b. Eleberriak azokan aurkezten diren hainbat libururen lehia izatea.
- c. Azokako gainontzeko itzulpen-lanek adinako arretarik ez lortzea.

6. Nori adierazten dio bere eskerrona kazetariak?

- a. Lovecraft-i.
- b. Ruiz Benitori.
- c. Houellebcq-i.

Aukera ezazu erantzun egokia eta jar ezazu dagokion letra ondoko laukietan

0.- A	1.-	2.-	3.-	4.-	5.-	6.-
-------	-----	-----	-----	-----	-----	-----



Irakurmena

Iparraldeko txokolateari buruzko testua irakurri.

Egitekoa

Ariketa honetan bereizi egin dira elkarrizketa bateko galderak (orrialde honetan) eta erantzunak (hurrengo orrialdean). Jarri galdera bakoitzari dagokion erantzuna beheko laukian, adibidean egiten den bezala. Kontuan izan bi erantzun sobera daudela eta 0 zenbakikoa adibidea dela.

— 3. testua —

“Iparraldean txokolatea izugarri zaharra da,
anitz txokolategi bazen nonahi“

Txokolatea egiten dute Pantxoa Bimboire eta Maddi Etcheverryk, ohiko erara, artesanala. Algortan hitzaldia eta euren produktuen dastatzea eskaini ondoren, Pantxoak erantzuna eman die gure galderei.

Galderak:

0.- Txokolatea egiten duzue, "ohiko ekoizpena", zer esan nahi du horrek?

- 1.- Produktu naturalak erabiltzen dituzue?
- 2.- Hobe da zuen txokolatea? Zer alde dago txokolate industrialarekin?
- 3.- Eta ohikoa da Euskal Herrian txokolatea egitea zuen moduan?
- 4.- Asko saltzen duzue?
- 5.- Bestelako gozokiak ere egiten dituzue?
- 6.- Eta esportatzen duzue?
- 7.- Gaurkoa bezalako ekitaldirik maiz egiten duzue?

Erantzunak:

- A.- Nik ezin dezaket hori esan. Argi dagoena da lan egiteko modua eta azken emaitza oso ezberdinak direla. Guk kalitatea bermatzen dugu, baina nork bere gustua izango du.
- B.- Orain arte iraun dugu, eta seme-alabak jarraitzeko prest daude. Beraz, ez gara horren beldur.
- C.- Bai. Kakao-haziak geuk erosten ditugu. Hazia erre ondoren puskatu egiten dugu eta ingurua kentzen diogu. Horrela kakaoa lortzen dugu, gero kafearekin, esnegainarekin edo edozein gauzarekin nahastuko duguna. Beraz, prozesu osoa kontrolatzen dugu kalitatezko produktu naturala egin ahal izateko.
- D.- Bai. Turroiak eta bestelako produktuak egiten ditugu, baina gehiena txokolatea.
- E.- Beno, saltzen da; gozokia saltzen dugu, baina txokolate beroa ere bai. Azken hau gorantz doan kontsumo mota da.
- F.- Gutxitan. Behin batez egon ginen Oñatin Iparraldeari buruzko aste batean, baina bestela gutxitan. Oraingo honetan oso gustura egon gara gure lana ezagutzera eman dugulako, eta gainera euskaraz!
- G.- Nire amatxi zenak erosi zuen denda 1930ean eta gurea hirugarren belaunaldia da negozioan. Beste lan batzuk ere baditugu, baina etxeko negozioari lotuta jarraitzen dugu, eta, gainera, ez dugu batere aldatu txokolatea egiteko modua.**
- H.- Sariak jasotzea beti garrantzitsua da, horrek adierazten du bide onetik goazela.
- I.- Orain ez. Iparraldean txokolatea izugarri zaharra da, anitz txokolategi bazen nonahi. Baionan bertan baziren hamar txokolategi alde berean, baina marka handiak gauzak industrialki egiten hasi zirenean, gehienek porrot egin zuten. Gutxi gara jarraitzen dugunok.
- J.- Orain gutxi hasi gara. Kantitatea txikia da, baina zati txiki bat Tokiora eta Estatu Batuetara bidaltzen dugu.

0.- G	1.-	2.-	3.-	4.-	5.-	6.-	7.-
-------	-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----



Idazmena

Egitekoa

Jarraian, iritzia emateko proposatzen zaizkizun bi gaietako **bat** aukeratu behar duzu (kontuan hartu zer eskatzen den).

Oharrak:

- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten.
- Gogoratu gutxieneko hitz kopurua bete behar duzula. **Gutxienez, 200 hitz idatzi behar dituzu.**
- Idazlana zuzentzean arlo hauek hartuko dira kontuan:
 - eskatutakoari erantzun diozun
 - testu egokia osatu duzun
 - euskara egokia, zuzena eta aberatsa erabili duzun
- Idazteko boligrafoa erabili (zirriborroetarako arkatza erabil dezakezu).

**Zirriborroetarako orria
(orri hau ez da zuzenduko)**

Aukeran dituzun bi gaietatik **bat** egin behar duzu.

1. gaia: Irakasleen bajak arazo psikologikoak direla eta.

Egoera:

Auzoko aldizkarian honako berria irakurri duzu:


“Herriko eskolan bost irakasle daude bajan arazo psikologikoak direla eta.”

Berria irakurtzean jakin duzu zuk DBH egin zenuen eskolako irakasleak direla.

Egitekoa:

Irakurri duzun **berriaren gaineko iritzia idatzi behar duzu** aipatutako aldizkariako irakurleen txokora bidaltzeko. Horretarako, ondoko puntu hauek **erabil ditzakezu, nahi izanez gero.**

- Horrelako bajen arrazoiak.
- Irakasleen lana lehen eta orain.
- Ikasleen eta gurasoen jokabideak.
- Egon litezkeen irtenbideak.



2. gaia: Tabakoaren lege berria.

Egoera:

Tabakoaren lege berriari buruzko inkesta egin dute euskaltegiko aldizkarian. Galdera honako hau izan da:


“Tabakoaren legeak ekarri digun aldaketa onerako ala txarrerako izan da?”

Orain arteko emaitzak nahiko parekatuak dira: %55 legearen alde eta %45 aurka.

Egitekoa:

Inkestan egindako galdera dela eta, **zure iritzia eman behar duzu** aldizkariaren foro irekian. Horretarako, ondoko puntu hauek **erabil ditzakezu, nahi izanez gero:**

- Alde onak eta txarrak.
- Gure ohituretan izan dituen aldaketak.
- Ekarri dituen ondorio ekonomikoak.
- Zerbait aldatzekotan zer aldatu beharko litzateke?



Gaia:

5

10

15

20

25

.....
.....
.....
.....

30
.....
.....
.....

35
.....
.....
.....

40
.....
.....
.....

45
.....
.....
.....

50



BIGARREN MAILAKO AZTERKETAREN ZATIAK ETA PUNTUAZIOA:

Proba idatzia 50 Gainditzeko 25	Irakurmena Idazmena	gutxienez 10 gutxienez 15	20 puntu 30 puntu	45 min inguru 60 min inguru
Ahozko proba 50 Gainditzeko 25	Entzumena Mintzamena	gutxienez 10 gutxienez 15	20 puntu 30 puntu	25 min inguru 10 min inguru
	Guztira	gutxienez 50	100 puntu	

Agiria eskuratzeko gutxienez 50 puntu beharko dituzu, 25 proba bakoitzean.
Agiria eskuratzeko ezinbestekoa da bi probetan (idatzian eta ahozkoan) **gai** izatea.
Emitza bakarra emango da: **GAI/EZ GAI**.

Hauek dira idazmena zuzentzeko irizpideak:

IKUSPEGI OROKORRA. Eginkizuna betetzea, erraz ulertzea lehenbiziko irakurketan. Koherentea izatea, hari logiko bati jarraitzea.

BALIABIDE LINGUISTIKOAK (ABERASTASUNA). Lexikoaren aberastasuna. Erregistroa. Egitura aberatsak. Antolatzaileak, lokailuak, kohesio-formak. Testu motari dagokion egitura.

ZUZENTASUNA. Mailari dagozkion egitura morfosintaktikoen erabilera. Lexikoaren erabilera. Puntuazioa. Ortografia.